Irakaslea: Bale entzun. Saioa, jesarri zaitetz ondo mesedez. Elaia etorri hona mesedez. Bale ia entzun. Ia psikogelan bi arau bakarrik dauzkagu. Elaia, gogoratuko diguzu zeintzuk diren?

Elaia: Bai.

Irakaslea: Lehenengo araua.

Elaia: Ezin da jo.

Irakaslea: Ezin da mina..

Denok: Emon.

Irakaslea: Eta bigarren araua? Ezin da mina...

Denak: Hartu.

Irakaslea: Hartu bale? Norbaitek mina ematen edo hartzen badu, jesarriko da lasaitzeko pizkat, bale? Eta 1, 2 eta 3 bankuetara esaten dugunean zer egin behar dugu?

Marko: Stop.

Irakaslea: Utzi egiten gaudena, eta korrika korrika korrika bankuetara etorri. Bai? Ipuin bat irakurriko dizuet eta ondoren marrazki bat egingo dugu, eta bukatzen dugun heinean jasoko ditugu blokeak bai? Ulertu da?

Denok: Bai.

Irakaslea: 1, 2 eta 3 esaten dugunean utzi egiten zaudetena eta korrika korrika bankuetara. Marrazkia egiten dugunean gogoratu izena jarri behar dugula. Orduan orain jarriko gara iladan eta 1, 2, eta 3 esango duzu?

Elaia: Bai.

Izadi: Yo voy a tirar eso.

Irakaslea: Izadii guztiok batera, bai?

Marko: Yo voy a tirar estos dos.

Dana: Yo el rosa.

Marko: Yo lo voy a tirar así.

Irakaslea: Denok gauz ondo iladan?

Denok: Baii.

Irakaslea: Balee isiltasun guztia behar dugu mesedez. Isiltasun guztia daukagunean, 1, 2 eta 3 esan ahal duzu Elaia.

Elaia: 1, 2 eta 3 jolastera.

Alazne: Andereño hay un bicho ahi.

Irakaslea: Bota zakarrontzira maitia.

Aisha: Es una mosca.

Irakaslea: Eulia da?

Aisha. Bai.

Irakaslea: Nor dau negarrez?

Aisha: Alize.

Irakaslea: Izan da nahigabe?

Alize: Ez.

Irakaslea: Joan nahi duzu jolastera?

Alize: Ez.

Irakaslea: Saioa, koltxonetagaz hortik kanpora mesedez. Saioa. Saioa. Kanpora. Alize begira joan nahi duzu koltxoneta horretara blokeekin?

Alize: Ez.

Irakaslea: Begira Nahia dago han etxetxo bat egiten Alize.

Elaia: Lo tengo yoo.

Alazne: Pero yo lo teniaa.

Irakaslea: Neskak egin txandaka. Alize, egingo dugi salto?

Alize: Bai.

Irakaslea: Oso ondoo. 1, 2 eta 3. Guaauuu.

Alize: Eman eskua.

Aisha: Mira toco el techo.

Irakaslea: Bai, oso altu zaude. Itxaron jarriko dut koltxoneta ondo. Hori ez da deskantzatzeko Aisha.

Aisha: Bale.

Alize: Yo puedo subir sola.

Irakaslea: Bai, badakit. Aisha eta Jone txiribuelta egin nahi baduzue egin beste koltxonetan, hemen mina hartu ahal duzue. Saioa, kontuz egin behar duzu, bestela min egiten diezu lagunei. Saioa, ez apurtu haien etxea.

Aisha: Andereño, Jone me lo ha cambiado, pero luego no me lo daba a mi.

Izadi: Andereño, hau non utziko dugu?

Irakaslea: Utzi hor lasai.

Izadi: Liburu hori irakurri genuen ziortzarekin.

Irakaslea: A bai?

Alazne: Andereño, Aisha me ha tirado eso.

Irakaslea: Izan da nahigabe maitia. Aishaa etorri hona. Kontuz etxearekin bai? Saioa, pilota hori nahiak euki du bai? Saioa maitia, begira. Bloke hori eta hori dira Ibaireren porteria, beraz ez hartu hortik blokeak. Han dituzu hartu ahal dituzun beste batzuk. Zelan pasatu duzu oportretan Saioa? Norekin joan zara?

Saioa: Amatxu

Irakaslea: Amatxugaz, eta zer egin duzue?

Saioa: Jolastu.

Irakaslea: Eta gaur goizean zergatik egon zara triste, ez zenuen nahi eskolara etorri?

Saioa: Ez.

Irakaslea: Baina gero oso gustura egoten zara ezta? Hemen lagun pilo daukazu ezta? Nortzuk dira zure lagunak? Alize, Nahia, Alaia... ezta?

Saioa: Bai.

Irakaslea: Elaia?

Saioa: Bai.

Irakaslea: Eta Martin?

Saioa: Bai.

Irakaslea: Neskaak, ez mugitu koltxoneta handia mesedez. Jannat kendu hortik. Ez da zihurra.

Aisha: Andereño, esque no me deja jugar alli con ella.

Irakaslea: Ba galdetu, seguru zurekin jolastu nahi duela. Eee Marko ez ibili nire gauzetan hor.

Alazne: Andereño txisaa.

Irakaslea: Ba joan Alazne.

Marko: Andereño txisaa.

Irakaslea: Orain joango zara Alazne datorrenean.

Irakaslea: Joan 2 urteko komunera Alazne.

Alazne: ¿Cual es el baño de 2 años?

Irakaslea: Han eskinean dauen komuna.

Saioa: Andereño nahi dut hori.

Irakaslea: Bale, orain aterako dut.

Izadi: Andereño yo también quieroo.

Marko: Y yoo.

Irakaslea: Bale orain aterako dizuet, lasai.

Paula: Andereño txikia.

Dana: Nik nahi dut horii.

Ibai: Eta niik.

Dana: Espérame amiga, gatiiitaa. Ibai miraa.

Ibai: Yo ya lo sé hacer.

Aisha: Andereño asi?

Irakaslea: Horii da. Zer maitia?

Elaia: Ez nahi dut.

Irakaslea: Balee laister hasiko gara jasotzenn.

Elaia: El suelo es lava.

Denok: El suelo es lava. Quema.

Elaia: Andereño horrela? Begiraa.

Irakaslea: Baii, hori daa.

Dana: Andereño begiraa.

Irakaslea: Marko, ez igo horra mesedez. Horrela ez gara igotzen.

Marko: Zergatik?

Irakaslea: 1, 2 eta 3 bankuetaraa. Bankuetaraa. Utzi dana dagoen bezala eta bankuetara. Marko jesarri han, bankuetan. Saioaa bankuetara.

Alize: Alazne esta sangrando ahiii.

Irakaslea: Bale lasaii gero garbituko dugu.

Jone: Quien esta sangrando?

Irakaslea: Dilin dalan, dilin dalan, ipuinaren ordua da. Dilin dalan, dilin dalan, ipuinaren ordua da. Ez jantzi zapatak ez jantzi zapatak, ipuina entzun behar dugu.

Izadi: Andereño ese hemos visto con Ziortza.

Irakaslea: Kremaierak itxita, begiak irekita eta belarriak prest entzuteko. Saioa, hor Jone dau mugitu zaitetz. Saioaa, hor Jone dago. Bale orain ipuina entxungo dugu. Gaurko ipuina mounstro bat ohe azpian deitzen da. Mounstro bat ohe azpian. Willik badaki ziur bere ohe azpian mounstro bat dagoela. Oraindik ez du ikusi baina badaki non dagoen. Gauren batean bere ohera igoko da eta pelutxezko hartza hartuko dit! pentsatzen du bere artean eta loez egin ezean mantaren azpian izkutatu da. Bat-batean garrasi bat entzun da - AAAAAAAAAAAMAAAA!

Ibai: Como?

Irakaslea: Ameizgaizto bat izan duzu Willi? -galdetu dio amak mutikoari haren logelako atea azkar irekiz.- shhhhh shhhh- xuxurlatu du Willik.- Mounstro bat dago ohe azpian- esan du Willik.- Ama haori entzutean barrezka hasi da.- Benetan ari naizela Ama- esan du Willik.- Oso hots arraroak entzuten dira gainera. - Beno, entzun dezagun.- esan dio amatxok Williri, burua laztanduz. Brun brun, auto baten hotsak dira horiek, ez naiz hain inozoa!. Haizea dabil pertsiana mugitzen!. - Hara, hori badakit amatxo- esan du Willik.- Amak ez du beste hotsik entzuten eta Willik ere ez.- Orain egizu lo lasai, maitia.- Ez, begira ezazu ohe azpian.- esan du Willik. - Orduan, amatxo ohe azpian begiratzen hasi da. Eta bat-batean AAAAAAAAAAAAAAAAAA.- Ama, zer?- AAAAAAAAAAAAAAAAAA, begitxo batzuk daude hor azpian. AAAAAAAAAA.- Eta Willik esan dio- eta zer da, mounstro bat da amatxo?- Eta amatxok esan dio- ez, ez Willi, sagua da. Sagua da ohe azpian dagoena. - Eta orduan Willik, esan dio- lasai amatxo, sagu bat besterik ez da.- Eta orduan amatxo sartu da ohean Willirekin. Eta hala bazan edo

Denok: ...ez bazan zar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan!

Irakaslea: Orduan, orain entzun, bakoitzak hartuko du orritxo bat, jarriko du goian izena, eta gero margoztuko dugu psikogelan zer egin dugun. Orduan hartu papelak.

Izadi: Andereño beitu Alize.

Irakaslea: Alize, jarri ondo mesedez.

Alize: Nik ez daukat.

Irakaslea: Orain emango dizut.

Alize: Marko tiene un errotulki!

Irakaslea: Marko eman errotulkia. Jarri izena mesedez. Eta bukatzen duzuenean lagundu blokeak jasotzen, mesedez.

Alize: Esque yo estaba en el banco primero.

Irakaslea: Alize baina bankua ezin da margoztu.

Izadi: Yo quier ahii

Irakaslea: Makinistta, euskera mesedez.

Elaia: Andereño amaitu dut.

Irakaslea: Izena dauka?

Elaia: Bai.

Irakaslea: Bale, ba utzi kutxan eta lagundu jasotzen.

Paula: Andereño amaitu dut.

Aisha: Andereño amaitu dut.

Irakaslea: Bale ba sartu kutxan eta lagundu jasotzen.

Izadi: Andereño Olaia no tiene amigas.

Irakaslea: Mesedez, ez esan horrelako gauzak.

Aisha: Andereño toma.

Irakaslea: Eskerrik asko bihotza, utzi hor.

Aisha: Es que hemos hecho la casa en el aire. Joe es que aqui hay mas cosas!

Paula: Esto si que pesa!

Irakaslea: Bai? Pisu handia dauka?

Aisha: Yo no lo voy a llevar.

Irakaslea: Ala ekarri blokeak mesedez!

Aisha: Uno, dos y tres.

Irakaslea: Jarri izena mesedez.

Marko: Que rapido!

Olaia: Listo.

Irakaslea: Jarri izena mesedez.

Aisha: Andereño mira!

Elaia: Esto aqui?

Irakaslea: Hori hor dihoa maitia.

Aisha: Andereño Olaia no me dejaa.

Irakaslea: Bion artean eraman ahal duzue. Balee, jantzi zapataak! Jarri izena marrazkian. Alaaa, jantzi zapatak mesedez.

Jone: Yo no he terminado.

Alize: Joo, Elaia! No, sientate en el otro ladoo. Que noo!

Irakaslea: Marko izena jarri duzu?

Marko: Bai.

Olaia: No tengo mucho sitio.

Irakaslea: Ba eskatuu. Elaia itxidazu pixka bat, mesedez. Alize, bukatu behar duzu, bai?

Alize: Solo esto vale?

Irakaslea: Azkena bale? Jone listo, jarri izena eta jarri kutxan. Balee, Elaia prest zaude?

Aisha: Ni bai, prest nago.

Irakaslea: Ala treneraa. Saioa jantzi zapatak. Jone zapatak.

Paula: Puedo tocar tu camiseta?

Irakaslea: Ala, treneraa.

Aisha: Andereño orain txokoak?

Irakaslea: Ala bagoaz gelaraa.

2023/04/18: Korro 3

Irakaslea: Nork ekarri du kotxe hau? Anasek?

Alize: Martinek.

Irakaslea: Martin, zuk ekarri duzu?

Irakaslea: Yo lo tenía de coche oficial en casa.

Irakaslea: Martin, zuk ekarri duzu?

Martin: Ez.

Irakaslea: Nork ekarri du hau? Denok daukagu amantala lotuta? Ala goazen yoga egitera kuadri. Olaia jarri duzu izena?

Olaia: Bai.

Irakaslea: Bueno, gaurko makinista badakigu nor dan ez?

Alaia: Olaia.

Irakaslea: Orduan gaur ere ez ez dugu zozketarik egingo.

Alize: No, porque es otro cumple. Y vamos a tener más chuches.

Irakaslea: Bai, bueno gaur ez dakigu.

Izadi: Andereño hoy es el cumple de Haizea

Irakaslea: Bai.

Izadi: Y voy a tener otro paquete de chuches.

Irakaslea: Ez zen gaur?

Izadi: Ez.

Irakaslea: Zuek joan apur bat atxerago.

Izadi: Voy a tener muchas chuches.

Irakaslea: Ez dakit nik hainbeste chuche, hainbeste chuche...

Unai: Andereño

Irakaslea: Zer bihotza.

Unai: Yo no he, no ha sido mi cumple.

Irakaslea: Ez, baina gaur Elaiak ekarri dizu atzoko paketea ezta? Ekarriko diozu paketea? Amatzok emango dio arratsaldean? Bai?

Elaia: Bai.

Irakaslea: Eta Olaia, zuk txutxeak ekarriko dituzu?

Olaia: Bai.

Irakaslea: Bebai? Joe.

Izadi: Andereño

Irakaslea: Zer maitia.

Izadi: Beste pakete chuchea, beste pakete chuchea...

Irakaslea: Zer maitia, ez zaitut entzuten.

Mia: Gaur etxera?

Irakaslea: Bai, gaur etxera zoaz bai.

Izadi: Porque Elaia hoy se va etxera?

Irakaslea: Elaia ez Mia.

Izadi: Mia?

Irakaslea: Mia bakarrik gelditzen da jantokian asteazken eta ostegunetan. Bihar eta etzi. Haizearen urteetan eta hurrengo egunean bai? Ia ordenatuko ditugu. Ia seinalatzeko atzamarra barrura sartuko dugu eta guazen arnastera egunero bezala ia. Seinalatzeko atzamarra barrura barrura eta guazen lehenengoz sudurretik arnastera eta gero ahotik.

Izadi: Andereño ez daukat lekurik.

Irakaslea: Joan pixka bat atzerago maitia. Gainera, Martin eta Alazneri bizkarra ematen zaudete. Gustora zauz hor Elaia? Bai? Orain katua haserre eta pozik ia.

Izadi: Horrela?

Irakaslea: Shhhh.

Alaia: Horrela?

Irakaslea: Shhh. Ez hitz egin. Shhh.

Alaia: Andereño begira.

Irakaslea: Hori da, bikoteka ere egin daiteke.

Alaia: Horrela?

Irakaslea: Orain jesarriko gara, eta abestuko dugu 3 aldiz Om eta gure Mantra. Eta orain egin behar dugu egunon eta agurra. Hasiko zara atzoko makinista egunon eta agurra egiten? Lehenengoz gogoratuko diguzu agur motak? Ia zeintzuk daude?

Elaia: Muxua.

Irakaslea: Muxua eman. Bigarrena?

Elaia: Abrasito.

Irakaslea: Besarkada eman. Hirugarrena?

Elaia: Bostekoa.

Irakaslea: Bostekoa. Laugarrena

Elaia: Masajitoa bizkarrean.

Irakaslea: Oso ondoo. Eta bostgarrena?

Elaia: Eskua eman.

Irakaslea: Oso ondo. Hasi nahi duzunean maitia. Miari eman maitia.

Elaia: Egunon Mia.

Mia: Egunon Dana.

Dana: Egunon Matias.

Matias: Egunon Martin.

Martin: Egunon Nahia.

Nahia: Egunon Alaia.

Alaia: Egunon Alize.

Irakaslea: Alaia lotu botoiak.

Alize: Egunon Aiala.

Aiala: Egunon Ibaixo.

Ibai: Egunon Aisha.

Aisha: Egunon Mia.

Mia: Egunon Anas.

Anas: —

Izadi: Egunon Unai.

Unai: Egunon Alazne.

Irakaslea: Benga Alazne Luciari.

Alazne: Egunon Lucia.

Lucia: Egunon Jone.

Irakaslea: Eta Markori denok emango diogu? Mukiak kentzera joan dela? 1, 2 eta 3

Denok: Egunon Markoooo.

Irakaslea: Bala eta orain, Olaia ekarri arkatza. Ze gaur nor da gure makinista?

Denok: Olaiaaa. Olaia da makinistaa makinistaa daa, Olaiaa da makinistaaa maquinista daa, Olaiaa, Olaiaaa maquinista da.

Alazne: Andereño txisa.

Irakaslea: Joan.

Elaia: Andereño...

Irakaslea: Zer maitia, ez daukazu lekurik?

Aisha: Andereño txisa.

Irakaslea: Orain, Alazne datorrenean joango zara bai? Nahia etorri da oso dotore, soinekoagaz.

Unai: Baai.

Irakaslea: Elais jesarri ondo. Benga jarri izena, eta gometsa jarriko dugu. Gomets horia kasu honetan, bai? Berdea ya jarri genuen orain horia tokatzen da. Hasiko gara zerrenda pasatzen. Eta gero Unaik kontatu behar digu zer egin duen oportretan ze Unai atzo ez zen etorri eta ez zigun kontatu. Ia maitia, jarri izen guztiak zerrendan eta trena zure izenean. Eta goazen zerrenda pasatzera.

Izadi: Gaur etorri gara denok.

Irakaslea: Izadi orain entzuten egon behar gara bai? Igo 3 pertsona gora Olaia. Goian 3 zulo dauzela. Azpikoak. Igo 3 izenak gora, 3 zuloak estaltzeko, bai? Bale? Ia.

Unai: Andereño eta ni?

Irakaslea: Bai, orain.

Irakaslea: Olaia ekarri artaziak, zure argazkia mozteko. Alize jesarri zaitez ondo, eta Nahia, gauza bera. Bale, argazki hau gordeko dogu poltsikoan eta txokoetara joaten garenean gordeko duzu motxilan bai? Eta orain, jarri izena bere tokian eta hasi zerrenda pasatzen.

Alize: Porque lo guardas en el bolsillo?

Irakaslea: Gero gordeko dogu motxilan, ze orain ez naiz altxatuko.

Jone: Andereño cuando sea maquinista voy a cortar las fotos.

Irakaslea: Bai, bai kenduko ditugu argazkiak. Ia jesarri zaitezte ondo.

Alize: ¡Pero todavía no las habéis quitado! Ia hasi zaitez maitia.

Olaia: Martin etorri da?

Martin: Hemen dago.

Irakaslea: Egunon Martin!

Olaia: Dana etorri da?

Dana: Hemen dago.

Irakaslea: Egunon Dana!

Olaia: Alize etorri da?

Alize: Hemen nago!

Olaia: Alize etorri da?

Irakaslea: Bai, erantzun du. Egunon cariño.

Olaia: Elaia etorri da?

Elaia: -

Irakaslea: Elaia erantzuun.

Elaia: -

Irakaslea: Hemen nago.

Elaia: Andereño, estoy echando de menos a mi aita.

Irakaslea: Aitatxo Iñaki joan da hortikan aste honetan lan egitera? Txokoetara joaten garenean altxoan hartuko zaitut. Bai? Orain korroan egon behar gara, bai? Erantzungo diozu Olaiari maitia? Hemen nago.

Elaia: Hemen nago.

Irakaslea: Eskerrik asko esateagatik gertatzen zaizuna. Horrela erantzun bat eman ahal dizut.

Olaia: Marko etorri da?

Marko: Hemen nago.

Irakaslea: Egunon pitxin.

Olaia: Ibai etorri da?

Ibai: Hemen dago.

Olaia: Jannat etorri da?

Irakaslea: Ez, ez ez Jannat ez da etorri, ez ez ez etxean dago, etxean dago. Anas zer gertatzen zaio Jannateri? Badakizu? Ez? Jarri etxean maitia. Nik pentsatzen nuen beranduago etorriko zela, baina ez. Segi aurrera maitia.

Olaia: Alazne etorri da?

Alazne: Hemen dago.

Olaia: Alaia etorri da?

Alaia: Hemen dago.

Olaia: Olaia etorri da?

Irakaslea: Etorri zara eskolara bihotza?

Olaia: Hemen dago.

Irakaslea: Bale.

Olaia: Mathias etorri da?

Mathias: Hemen nago.

Olaia: Izadi etorri da?

Izadi: Hemen nago.

Olaia: Nahia etorri da?

Nahia: Hemen nago.

Olaia: Jone etorri da?

Jone: Hemen dago.

Irakaslea: NAGO, NA NA NA NA NAGO.

Saioa: Dago.

Irakaslea: Nago.

Olaia: Unai etorri da?

Unai: Hemen nago.

Olaia: Aisha etorri da?

Aisha: Hemen nago.

Olaia: Anas etorri da?

Anas: Sii.

Olaia: Saioa etorri da?

Saioa: Hemen nago.

Irakaslea: Bale zenbatuko ditugu zenbat lagun dauden etxean.

Olaia: Bat.
Irakaslea: Non dago bat zenbakia? Orduan etxean laguntxo bat, Jannat bakarrik. Idatzi maitia.

Jone: Andereño yo tengo un pollito rosa que tiene luz.

Alaia: Andereño Alize le está dando una patada a Ibai.

Irakaslea: Alize, ezta pentsatu ere ez. Hori egiten baduzu, aterako zaitut korrotik.

Izadi: Andereño, no tengo sitio. Saioa esta..

Irakaslea: Saioa mugitu pixkat, Izadiri leku gehiago izteko. Etxean bat. Oso ondo Olaia. Adoz. Eta orain goazen zenbatzera zenbat lagun dauden eskolan. Utzi bat zenbakia eta goazen zenbatzera ia.

Olaia: Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaika, —

Irakaslea: Hamabi. Errepikatu.

Olaia: Hamabi.,.,.,.

Irakaslea: Hamairu

Olaia: Hamairu

Irakaslea: Hamalau

Olaia: Hamalau

Irakaslea: Hamabost

Olaia: Hamabost

Irakaslea: Hamasei

Olaia: Hamasei

Irakaslea: Hamazazpi

Olaia: Hamazazpi

Irakaslea: Hamazortzi

Olaia: Hamazortzi

Irakaslea: Hemeretzi

Olaia: Hemeretzi

Irakaslea: Non dago bat eta bederatzi? Hemeretzi. Bat eta bederatzi maitia. Nahia altzatu zaitetz eta mugitu beste leku batera.

Izadi: Andereño Alize, Ibai eta Dana estan jugando.

Marko: Andereño txisa.

Irakaslea: Joan maitia. Orduan eskolan. Nahia egunero esan behar dizuet gauza bera, korroan isilik egoteko bai? Eskolan hemeretzi lagun, ia maitia idatzi. Bale, orain goazen ikustera zer egun den gaur.

Izadi: Andereño

Irakaslea: Ia goazen ikustera ze egun da gaur. Gaur astelehenari agur agur esango diogu, hemeretzi bere lekura, dena kanpora eta goazen ikustera. Ze egun da gaur? Nork daki? Olaia zuk badakizu?

Izadi: Ostirala

Irakaslea: Ostirala ez da.

Marko: Astelehena.

Irakaslea: Astelehena atzo izan zen.

Denok: Astearteaaa.

Irakaslea: Astearte daa. Berdea. Hori da. Eta orain kendu guztiak eta jarriko ditugu berriro ia. Alize egon isilik mesedez. Ia guztiak kutxara. Orain goizean zer daukagu maitia?

Ibai: Txokoak.

Irakaslea: Olaia mesedez.

Olaia: Txokoak.

Irakaslea: Olaia da makinista eta Olaiak erantzungo du. Txokoak. Gero? Txoko ondoren?

Olaia: Patioa.

Ibai: Patioa?

Irakaslea: Patio aurretik zer daukagu bihotza?

Olaia: Ogia eta ura.

Irakaslea: Ogia eta ura ondoren zer daukagu bihotza?

Olaia: Patioa.

Irakaslea: Patio ondoren badakizue nora joango garen?

Denak: Txokoak.

Irakaslea: Patio eta gero joango gara gure tomateak non utxi genituen badakizue? Gogoratzne duzue?

Denak: Bai.

Irakaslea: Or..

Izadi: Ortuga.

Irakaslea: Ortura. Ortura joango gara gure tomateak ikustera. Esan didatela pixkat triste daudela. Faltan botatzen gaituztela. Gero ikusiko ditugu tomateak, patio eta gero. Eta gero, nora gatoz berriro? Gelara, zertara? Txo..

Olaia: Koak.

Irakaslea: Txokoetara. Bale, gero batzuk etxera eta beste batzuk jantokira goaz. Eta arratsaldean zer daukagu? Heloo, heloo

Denak: Teacher Maitane.

Irakaslea: Teacher Maitane. Eta gero? Zapata zapata, zapata. Norekin abesten duzue hori?

Aisha: Garazi.

Irakaslea: Garazirekin

Marko: Lehenengo Garazirekin.

Irakaslea: A lehenengoz Garazi?

Marko: Bai.

Irakaslea: Eta gaur, zer eraman behar dugu etxera? Frutaren domina bai? Jarriko dugu hemen ze bestela andereñori ahazten zaio. Bai? Bale orduan orain begira hemen egutegia kendu dugu, egutegia kendu dugu ze ya martxoan pasatu da. Eta orain ze hilabetetan gaude? Udaberrian jarraitzen dugu, ze oraindik udaberria da, baina ze hilabetean gaure? AAAA

Alaia: Apirila.

Irakaslea: Apirila. Apirilean gaude. Eta Apirilean izan ditugu bi urtebetetze. Olaia eta Alaiarenak. Eta ostegunean izango dugu beste bat. Norena?

Marko: Alaiarena.

Irakaslea: Ez, Alaiarena izan da ya. Noren urteak izango dira? Esan. Noren urteak izango dira?

Marko: Ibairrenak

Irakaslea: Ibairrenak. Hori da.

Marko: Eta zuk. Andereño, eee habias dicho que

Irakaslea: Euskeraz. Zer esan nuen nik?

Marko: Ze Alaia urtebetetxea.

Irakaslea: Alaiaren urteak izango dira ekainean.

Marko: Ekainean.

Irakaslea: Falta dira bi hilabete Alaiaren urteak izateko. Bai? Ezta Alaia?

Alazne: A mi hermano también.

Irakaslea: Uda hasten denean, uda iristen denean eta hondartzan sorosleak dauzenez Alaiaren urteak izango dira, bai? Badakizue zer diren sorosleak? Ia Olaia ekarri arkatza eta idatziko duzu zure urtebetetze eguna, Elaiarena eta Ibairrena ia. Sorosleak dira sokorristak. Ia tori bihotza. Ia Elaiarena izan zen 6an. Non dago 6 zenbakia. Aurkitzen duzu?

Olaia: Ez.

Irakaslea: Ia Elaia etorri daguntzera. Aurkitzen duzue?

Elaia: Hau.

Irakaslea: Hori da 7. Aurrekoa. Hori da. Eskerrik asko Elaia. 7an Olaiaren urteak izan ziren. Non dago 7 zenbakia? 6 eta gero 7. Hori da

Izadi: Andereño Saioa me esta molestando.

Irakaslea: Saioa ez molestatu Izadi, horretarako mugitu zaitez mesedez. Bale eta Ibai, zure urteak ze egunetan dira? 20an. Ia bilatu 20 zenbakia. Non dago zenbaki hau egutegian? Ikusten duzue 2 eta 0? Jone, zuk ez duzu egin behar. Hortxee. Hor noren izena idatzi behar dugu?

Olaia: Ibai.

Irakaslea: Hori da. Hementxe Ibai.

Izadi: Andereño, estan jugando.

Irakaslea: Oso ondo Olaia. Bale eta orain Olaiak txokoak aldatzen dituen bitartean gogoratuko dizuet irakurketa txokoan egin behar duguna bai? Eta Unaik kontatuko dugu oporretan egin duena bai? Orduan, hor margoztu behar dugu oporretako marraskia. Orduan

goian idatzi behar dugu lehenengoz gure izena eta gero oporrak. Zelan idazten da oporrak?

Lehenengoz ze letra dator?

Denak: O

Irakaslea: O Olaiarena. Gero?

Denak: P

Irakaslea: Peiorena, patata.

Alize: Paularena.

Irakaslea: Paularena. Gero zein dator berriro?

Denak: O

Irakaslea: Gero?

Denak: R

Irakaslea: R bikoitza. Bi aldiz R. R bikoitza. Gero zein dator? Aaaa oporrAAAK

Denak: A

Irakaslea: A. Alaznerena. Eta azkena?

Denak: K

Irakaslea: Markok badauka K. Erik badauka K. Oporrak. Eta orain txokoetara joan aurretik Unai kontatuko diguzu oporretan egin duzuna?

Elaia: Andereño, y hay una tia que se llama Erik.

Irakaslea: A bai? Lehengusu bat daukazu Erik deitzen dena?

Elaia: Bai. Y empieza también con mi letra.

Irakaslea: Bai, E letrarekin hasten da ezta? Marko Erik E letrarekin hasten da?

Marko: Bai.

Alize: Mi primo tambien.

Irakaslea: Egia da. Kanpoan bizi dena ezta? Ingeleses hitz egiten duena. Teacher bezala. Unaitxo kontatuko diguzu zer egin duzun Sanperezen.

Unai: Ez.

Irakaslea: Ez diguzu kontatu nahi? Atzo denok kontatu zuten. Etorri, kontatu. A ver zer egin duzu herrian bihotza?

Unai: Mm

Irakaslea: Norekin egon zara herrian?

Unai: Amatxurekin, aitatxurekin

Irakaslea: Aitatxo Ander. Yaya Rosi egon da?

Unai: Bai

Irakaslea: Aaaa. Yaya Rosi.

Unai: Amatxu

Irakaslea: Arreba egon da?

Unai: Bai. Eta ni.

Irakaslea: Eta zu. 5 pertsona egon zarete etxean. Eta zer egin duzue herrian?

Unai: Jolastu.

Irakaslea: Jolastu zerekin? Bizikletarekin?

Unai: Nik jolastu dut kotxerekin.

Irakaslea: Aaa polizia kotxearekin? Eta ze gehio maitia?

Unai: Eee

Irakaslea: Ez zara bizikletan ibili?

Unai: Parkera

Irakaslea: Parkera joan zara. Eta Zanperezzen parkea dago?

Unai: Bai.

Irakaslea: Eta zer gehiago dago Zanperezzen? Erreka dago? Ibaia dago?

Unai: Bai.

Irakaslea: Eta ura zelan dago? Beroa ala hotza?

Unai: Beroa.

Irakaslea: Beroa? Joan beharko gara Zanperezera bainu bat hartzera. Sartu zara uretan?

Unai: -

Irakaslea: Sartu zara uretan? Bai? Bainatu zara ibaian?

Unai: Ez.

Irakaslea: Aa sartu zara bainontzian. Bale eta ze gehio?

Unai: -

Irakaslea: Ze gehio egin dozu herrian?

Unai: He sacado la bici de noche.

Irakaslea: Bizikleta atera duzu ilun zegoenean??? Alaa. Linerna batekin?

Unai: Ez. Sin linterna.

Irakaslea: Benetan? Eta ez zara horma baten kontra jo?

Unai: Hugo tenia una linterna.

Irakaslea: Hugo nor da?

Unai: De Nerea.

Irakaslea: Lagun bat?

Unai: Nerea. De amiga de mi hermana.

Irakaslea: A begira. Eta? Zer gehiago egin duzu?

Unai: He pintado

Irakaslea: Zer margoztu duzu? Marrazkitxo bat?

Unai: Bai.

Irakaslea: Orduan gustura ibili zara herrian?

Unai: Bai.

Irakaslea: Ongietorri Unaitxo. Orain jesarri zaitez. Eta Olaia nahi duzunean eta isilik daudenean esan 1, 2 eta 3 jolastera. Gogoratu txoko horretan egin behar dugula fitxa.

Olaia: 1, 2 eta 3 jolastera.

2023/04/17: Psikomotrizitate saioa 3

Irakaslea: Bale entzun jesarri danok korroan mesedez. Unai, jesarri zaitetz ondo mesedez. Izadi etorri hona mesedez. Bale ia entzun. Ia psikogelan bi arau bakarrik dauzkagu. Izadi, gaurko makinista, gogoratuko diguzu zeintzuk diren?

Izadi: Bai.

Irakaslea: Zein da lehenengo araua?

Izadi: Ezin da jo.

Irakaslea: Ezin da mina..

Izadi: Emon.

Irakaslea: Eta bigarren araua? Ezin da mina...

Denak: Hartu.

Irakaslea: Hartu bale? Norbaitek mina ematen edo hartzen badu, jesarriko da lasaitzeko pizkat, bale? Eta 1, 2 eta 3 bankuetara esaten dugunean zer egin behar dugu?

Ibai: Korrika etorri.

Irakaslea: Utzi egiten gaudena, eta korrika korrika korrika bankuetara etorri. Bai? Ulertzen da? Batzuetan ez dugu kasurik egiten, eta jolasean gelditzen gara, ez ez ez. Bankuetara etorri, ze ipuin bat irakurriko dizuet eta ondoren marrazki bat egingo dugu, eta bukatzen dugun heinean denon artean jasoko ditugu blokeak bai? Ulertu da?

Denok: Bai.

Irakaslea: 1, 2 eta 3 esaten dugunean utzi egiten zaudetena eta korrika korrika bankuetara. Zer gogoratu behar dugu marrazkian? Izadi?

Izadi: —

Irakaslea: Marrazkia egiten dugunean gogoratu izena jarri behar dugula. Orduan orain jarriko gara iladan eta 1, 2, eta 3 esango duzu?

Izadi: Yo voy a tirar eso.

Irakaslea: Izadii guztiok batera, bai?

Unai: Yo voy a tirar estos dos.

Marko: Yo el rosa.

Ibai: Ese es mio.

Irakaslea: Denok gauz ondo jarrita?

Denok: Baii.

Irakaslea: Balee isiltasun guztia behar dugu mesedez. Isiltasun guztia daukagunean, 1, 2 eta 3 esan ahal duzu makinista.

Izadi: 1, 2 eta 3 jolastera.

Irakaslea: Zer gertatu da? Nor dau negarrez?

Ibai: Unai

Irakaslea: Zer gertatu da? Oraintxe bertan hasi gara jolasean.

Unai: Que Marko me ha tirau eso.

Irakaslea: Markok zer bota dizu?

Unai: Pelota.

Irakaslea: Igual nahigabe izan da? Joan nahi duzu jolastera?

Unai: Ez.

Irakaslea: Saioa, kontuz baloiarekin koltxonetan. Saioa. Saioa. Kanpora. Unai begira joan nahi duzu koltxoneta horretara blokeekin?

Unai: Ez.

Irakaslea: Neskak egin txandaka. Unai joango gara jolastera?

Unai: Bai.

Irakaslea: Oso ondo.

Dana: Andereño, Aisha me me lo ha quitado, yo lo tenía.

Irakaslea: Ez dakit nork euski duen, baina txandaka erabili ahal duzue? Bestela han dago beste bat.

Dana: Pero yo lo tenía.

Aisha: Yo quiero ese.

Irakaslea: Bai Aisha badakit, baina Danak euki badu, bere txanda da. Amaitzen duenean erabili ahal duzu, edo bestela hartu han dagoena.

Izadi: Andereño, hau zer da?

Irakaslea: Utzi hor lasai, gero erabiliko dugu. Neskaak, ez mugitu koltxoneta handia mesedez, ez da zihurra eta min handia hartu ahal duzue. Mugituko dut.

Aisha: Andereño, esque no me deja jugar alli con ella. Y no me deja, ahora es mi turno.

Irakaslea: Ba galdetu, seguru zurekin jolastu nahi duela. Gauzak elkarbanatu ahal dira eta biok batera jolastu.

Jannat: Andereño asi?

Irakaslea: Alize, ez igo horra mesedez. Horrela ez gara igotzen. Hortik jausten bazara, ez dago koltxonetarik eta min hartu ahal duzu. Gauza bera egin ahal duzu han.

Alize: Zergatik? Baina nik nahi dut hemen.

Irakaslea: 1, 2 eta 3 bankuetaraa. Bankuetaraa. Utzi dana dagoen bezala eta bankuetara. Alizee bankuetaraa. Dilin dalan, dilin dalan, ipuinaren ordua da. Dilin dalan, dilin dalan, ipuinaren ordua da. Ez jantzi zapatak ez jantzi zapatak, ipuina entzun behar dugu. Kremaierak itxita, begiak irekita eta belarriak prest entzuteko. Bale orain ipuina entzungo dugu. Gaurko ipuina mounstro bat ohe azpian deitzen da. Mounstro bat ohe azpian. Willik badaki ziur bere ohe azpian mounstro bat dagoela. Oraindik ez du ikusi baina badaki non dagoen. Gauren batean bere ohera igoko da eta pelutxezko hartza hartuko dit! pentsatzen du bere artean eta loez egin ezean mantaren azpian izkutatu da. Bat-batean garrasi bat entzun da - AAAAAAAAAAAMAAAA!

Izadi: Baina andereño hau da aurreko eguneko.

Irakaslea: Shhh. Ameizgaizto bat izan duzu Willi? -galdetu dio amak mutikoari haren logelako atea azkar irekiz.- shhhhh shhhh- xuxurlatu du Willik.- Mounstro bat dago ohe azpian- esan du Willik.- Ama haori entzutean barrezka hasi da.- Benetan ari naizela Ama esan du Willik.- Oso hots arraroak entzuten dira gainera. - Beno, entzun dezagun.- esan dio amatxok Williri, burua laztanduz. Brun brun, auto baten hotsak dira horiek, ez naiz hain inozoa!. Haizea dabil pertsiara mugitzen!. - Hara, hori badakit amatxo- esan du Willik.- Amak ez du beste hotsik entzuten eta Willik ere ez.- Orain egizu lo lasai, maitia.- Ez, begira ezazu ohe azpian.- esan du Willik. - Orduan, amatxo ohe azpian begiratzen hasi da. Eta

bat-batean AAAA.- Ama, zer?- AAA begitxo batzuk daude hor azpian. AAA.- Eta Willik esan dio- eta zer da, mounstro bat da amatxo?- Eta amatxok esan dio- ez, ez Willi, sugua da. Sagua da ohe azpian dagoena. - Eta orduan Willik, esan dio- lasai amatxo, sagu bat besterik ez da.- Eta orduan amatxo sartu da ohean Willirekin. Eta hala bazan edo

Denok: ...ez bazan zar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan!

Irakaslea: Orduan, orain entzun, bakoitzak hartuko du orritxo bat, jarriko du goian izena, eta gero margoztuko dugu psikogelan zer egin dugun. Orduan hartu papelak. Izadi zer jarri behar da marrazkian?

Izadi: Nombre

Irakaslea: Izena, eta zer da margoztu behar duguna?

Izadi: Marrazkia.

Irakaslea: Marrazkia zerena?

Alize: Psikogela.

Irakaslea: Balee. Amaitzen duzuenean lagundu jasotzen. Bai?

Aisha: Andereño amaitu dut.

Irakaslea: Bale ba sartu kutxan eta lagundu jasotzen.

Olaia: Listo.

Irakaslea: Jarri izena mesedez. Eta joan amaitzen. Lagundu jasotzenn. Azkena bale? Saioa listo, jarri izena eta jarri kutxan.

Aisha: Listo andereño.

Irakaslea: Ala treneraa, bagoaz gelaraa.3

21/04/2023: Desdoble 2

Irakaslea: Oihanerekin zoazte Anas, Mia, Olaia, Elaia, Izadi, Marko, Georgy, Jannat.

Izadi: Míaa tienes q ir.

Irakaslea: Bai, Mia zu Oihanerekin joan behar zara.

Izadi: Andereño esque Mia no se vaa.

Irakaslea: Zer gertatzen da Mia?

Mia: Andereño yo hoy xantokira?

Irakaslea: Bai, Mia gaur jantokian gelditzen zara.

Oihane: Ala bagoazz.

Irakaslea: Bai, geroartee. Bale talde, jesarri korroan eta entzun. Gaur Kandinskiren artelana egiten jarraitu behar dugu. Gogoratzen gara zer egi behar den?

Unai: Pintatu.

Irakaslea: Margoztu, bai. Zer gehiago?

Alize: Moztu.

Irakaslea: Moztu, ederto. Eta gero?

Ikasleak: —

Irakaslea: Pun..

Ibai: Puntzoia

Irakaslea: Puntzoia zer?

Ibai: Hacer puntitos con el punzon.

Irakaslea: Puntzoiarekin zulatu ezta?

Ikasleak: Bai.

Irakaslea: Bale, orduan batzuk joango gara mahai horretara, beste batzuk txoko horretara eta beste batzuk mahai horretan. Bai?

Alize: Andereño, yo ya he pintado.

Irakaslea: Zuk margoztu duzu ya?

Alize: Bai.

Irakaslea: Bale, ba hartu artaziak eta moztu marratik, bai?

Unai: Andereño laguntza.

Irakaslea: Zer behar duzu?

Unai: Laguntza.

Irakaslea: Zertarako?

Unai: Pintatzeko.

Irakaslea: Saiatu zuk bakarrik egiten bai? Gero lagunduko zaitut.

Ibai: Alizee eso lo tengo yoo.

Alize: Pero yo lo necesito.

Ibai: Andereño.

Irakaslea: Zer pasatzen da?

Alize: Que que yo lo quieroo.

Irakaslea: Ya Alize baina nork euki du?

Alize: Niik.

Ibai: Ezz.

Irakaslea: Nik uste dut Ibaik euki duela. Beraz, Ibaik amaitzen duenean zure txanda izango da.

Mathias: Andereño.

Irakaslea: Amaitu duzu Mati? Etorri, pegatuko ditugu ya. Ekarri zela.

Unai: Yo, yo ya voy mucho. Solo me queda uno.

Ibai: Noo, te queda mucho.

Unai: Noo.

Ibai: Si, porque hay q hacer asi.

Unai: Noo. Andereño a que no me queda mucho?

Irakaslea: Bakoitzak bere lana. Gogoratu ez ditugula besteen lanak kritikatzten bai?

Dana: Miraa.

Alize: Andereño listo.

Irakaslea: Ederto, ekarri.

Alize: Zertarako?

Irakaslea: Jarriko diogu zela eta pegatuko ditugu horrela, bai?

Alize: Horrela?

Irakaslea: Bai, ia esan zuk zelan. Lehenengo zein nahi duzu?

Alize: Hau.

Irakaslea: Hau zer da?

Alize: Circuloa.

Irakaslea: Borobila.

Alize: Borobila.

Irakaslea: Gero?

Alize: Trianguloa.

Irakaslea: Triangelua oso ondo. Gero?

Alize: Eeee hau.

Irakaslea: Laukia.

Alize: Laukia.

Irakaslea: Eta azkena?

Alize: Hau.

Irakaslea: Laukii

Alize: Laukii

Irakaslea: Laukizuzee

Alize: Laukizuzena.

Irakaslea: Hori da. Pegatu hemen.

Alize: Listo.

Irakaslea: Minutu bat barru hasiko gara jasotzen bai? Besteak etorriko dira.

Alize: Eta orain?

Irakaslea: Orain, hasiko gara jasotzen ze ya Oihane etorriko da eta Argitxoren gelara zoazte bai?

Alize: Eta besteak?

Irakaslea: Baleee hasi jasotzenen.


3. ERANSKINA: Grabaketen inguruko xehetasunak

Egoerak	Grabazio-eguna	Parte hartu duten haur kopurua	Iraupena
Psikomotrizitate saioa 1	2023/03/13	18	1 ordu
Psikomotrizitate saioa 2	2023/03/27	20	1 ordu
Psikomotrizitate saioa 3	2023/04/17	20	1 ordu
Korroa 1	2023/03/15	18	30 minutu
Korroa 2	2023/03/31	20	30 minutu
Korroa 3	2023/04/18	19	30 minutu
Bikoizketa 1	2023/03/17	10	20 minutu
Bikoizketa 2	2023/04/21	9	20 minutu


4. ERANSKINA: Kontrol-zerrenda

Estrategiak	Korroa1	Korroa2	Korroa3	Psikomot_1	Psikomot_2	Psikomot_3	Bikoizketa1	Bikoizketa2
Aldamiaia afektiboa	5	11	21	0	2	0	0	4
Birformulazioa: hedapena	7	7	3	1	5	1	3	0
Birformulazioa: euskaratzea	5	1	6	3	4	3	4	6
Birformulazioa: ordezkapena	0	0	3	0	0	0	0	1
Pista metalinguistikoak	2	12	6	2	2	2	0	3
Zuzenketa esplizitua	0	0	0	0	0	0	0	0
Errepikapena	4	11	8	0	0	0	0	1
Aldamiaia kognitiboa (komunikazio maila)	4	3	4	0	2	2	0	1
Sorrerazpena	1	1	1	1	1	0	2	1
Galdera itxiak	23	44	67	3	19	14	9	9
Galdera irekiak	0	14	12	1	4	7	1	8
Argibideak/Azalpenak	59	44	13	22	30	5	15	11
Hitz txandak GUZTIRA	282	342	311	83	188	66	62	83
Irakaslearen parte-hartzeak	116	153	133	41	69	32	31	38


5. ERANSKINA: EAEn HHn matrikulatutako joera



6. ERANSKINA: Korroaren grafikoa




7. ERANSKINA: Psikomotrizitate saioaren grafikoa




8. ERANSKINA: Bikoizketaren grafikoa



9. ERANSKINA: Egoera guztien laburpen grafika



10. ERANSKINA: Hitz-txandak gaztelaniaz



11. ERANSKINA: Estrategien zerrenda

1. **Aldamiaia afektiboa** (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012): *Hizkuntzaren erabilera lantzeko aldamiaia* ere erabiltzen da: estrategia horien erabileraren bitartez, haurren ekoizpenak hobetzea bilatzen da.
2. **Aldamiaia kognitiboa (komunikazio mailan)** (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012): haurrak hizkuntzaren gaineko hausnarketa egitera bideratzen dituzten laguntza motak dira hauek; irakasleak ikasleari oharrak egiten dizkionean hitz egiteko moduari buruzkoak (argiago, astiroago, eskuak ahotik aterata, erantzun, isilik egon...).
3. **Birformulazioak**: Hiru azpitalde ezberdin identifikatu ditugu: (Llanos, 2003; Huarte eta Ozerinjauregi, 2012):
 - a. *Hedapena* (ikasleak esandakoa osatu, esaterako aditza falta denean; deklinabide kasua falta denean edo beste barik, esandakoa luzatu egiten denean).
 - b. *Euskaratzea* (ikasleak gaztelaniaz esandakoa euskaratu - hitzez hitz).
 - c. *Ordezkapena* (gaztelanitik mailegu bat egin duenean haurrak “pintatu” eta irakasleak “margotu” erabiliz erantzuten dionean).
4. **Pista metalinguistikoak**: esan behar denaren hasiera esan ikasleak erantzuna osatu dezan (Llanos, 2003).
5. **Zuzenketa esplizitua**: ikasleak zerbait txarto esaten duenean eta irakasleak txarto esanda dagoela esaten dionean, modu esplizituan (Llanos, 2003).
6. **Errepikapena**: Ikasleak irakasleari zerbait txarto esan ondoren, irakasleak ikasleari eredu egokia errepikatzeke eskatzen dionean (Llanos, 2003).
7. **Sorrerazpena** (Llanos, 2003) ikasleari esandakoa euskaraz esateko eskatzen zaionean.
8. **Galderak** (Huarte & Ozerinjauregi, 2012):
 - a. **Galdera irekiak**: irakasleak galdera irekiak erabili ahal ditu ikasleari tartea emateko modu autonomoagoan hitz egiteko: gertatutako zerbait kontatzeko, zergatiak azaltzeko, edo esandako zerbait osatzeko; eta
 - b. **Galdera itxiak**: hauek ez dute hainbeste aukerarik ematen ikasleak modu autonomoan hitz egiteko, askotan hitz pare batekin erantzun daitezkeelako. Askotan irakasleak ematen dituen argibideak edo azalpenak ulertzen direla egiaztatzeke erabiltzen dira.

Horrez gain, beste hitz txanda batzuk argibideak eta azalpenak emateko dira, hauek ez die ikasleei hitz egiteko aukerarik ematen, soilik irakasleak egiten dituelako. Horrelakoak ez ditugu aztertuko, soilik zenbatuko dira.

12. ERANSKINA: Metodologia eta testuinguruaren inguruko xehetasunak

Ikas taldean, autismoa duen haurra dago gelan, eta horregatik, tutoreaz gain, hezkuntza laguntzarako espezialista dago batzuetan gelan, hezitzaileaz gain. Gainera, logopedaren laguntza behar duten 2 haur ere badaude, astean behin klasetik kanpo laguntza jasotzen dutenak. HH4 urteko bi gela daude eta bertako tutoreak elkarlanean aritzen dira beti. Bi tutoreak urte honetan etorriak izan dira. Nahiz eta hori horrela izan, haien arteko harremana eta koordinazioa ezin hobea da.

Eredu pegagokioari dagokionez, txokoka egiten dute lan, D ereduan ikasten dute eta erabiltzen den metodologia txokoak dira. Txokoka lan egiteak, Bigasek (2000) esaten duen bezala, motibazioan eragiten du, eta ikasleen arteko elkarrekintza une aberatsak sortzen ditu, zeinetan hizkuntza landu egiten den. Gelaren antolaketari dagokionez, haurrak lau taldetan banatuta daude eta egunean zehar txokoetatik pasatzen dira. Zehazki: Etxe-txokoa: jolas sinbolikoan, eta imitazioan, aritzen dira; Lan- txokoa: landutako kontzeptuei buruzko fitxak egiten dira. Manipulazio-materiala, mahai-jokoak, puzzleak, eta ensartagarriak ete badaude. Plastika-txokoa: eskulanak egiten dira; Eta azkenik eraikuntza-txokoa: Autoak, animaliak eta eraikuntzak egiteko hainbat forma eta koloretako materiala daude. Horrez gain, gelan liburutegi txiki bat dago (ipuinak, albumak).

Metodologia zehaztuta, egunean zehar egiten diren jarduerak aipatuko dira. Lehenik eta behin, Huarte-k eta Ozerinjauregi-k, (2012) aipatzen dituzten hiru hizkuntza erabilera aukerak sortzen dira gelan. Hasteko, goizean ohitura eta errutinekin lotutako jarduerak egiten dira, korroaren bidez. Korroa egin eta gero, esperientzia arloan, txokoak egiten dituzte. Aldi berean, Lan txokoan, hizkuntza propioa lantzeko egoerak sortzen dira, zeinetan helbururik nagusia hizkuntza lantzea den (fitxak egiten dituzte).